

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0025	Ordainketa Zatitzea / Atzeratzea: Eskaria
---	---------------	--

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Zorren ordainkea zatitzea: Zerga zorren ordainketa hainbat kuotatan zatitzea, denbora luzeagoan ordaintzeko.

Zorren ordainkea atzeratzea: Zerga zorra mugaegunaren ondorengo une batean ordaintzean, dena batera.

NORK ESKA DEZAKE?

Interesatutako edozeinek edo bere lege ordezkariak.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E007 Eskabide orri orokorra](#)
- Behar bezala betetako eskari erdua (E007). Inprimakian zatikapenaren epe zenbakia adierazi behar da; baita kargu eguna noiz egingo den aukeratu (hilearen 1ean edo 15ean).
- Eskatzaileak beharrezkotzat irizten diona, kasua ezagutzeko eta eskariari erantzun egokia emateko.
- GESTIOEN BAIMENA: Izapidea edo sinadura interesatua ez den pertsonak egiten badu (Ordezkatutako pertsonaren NAN aurkeztu beharko da).
- Ordaindu beharreko kuotak helbideratzeko, banketxeko kontuaren titulartasuna ziurtatzen duen dokumentua.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Email bidez:

- diruzaintza@amorebieta.eus

Telematikoki:

- [Hasi online tramitazioa](#)

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Atzeratutako edo zatitutako kopouruek atzerapeneko interesa eragingo dute, Bizkaiko Foru Aldundiak arauz ezarritakoaren arabera.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 2 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Martxoaren 10eko 2/2005 Bizkairako Tributu Foru Araua](#) 26. art.
- [215/2005 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga -bilketari buruzko araudia onetsi duena](#) 31 eta 33 art.
- [Kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzako ordenantza fiskala](#) 12. art.

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Eskabidearen sarrera, HAZak egingo du.

Dagokion sailera bidali: Errentak eta diru-bilketa

- Espedientea teknikaren administrazioaren ikuspegitik aztertu
- Instantzia teknikoari zuzentzeko eskatu

Ebazpena

Jakinarazpena

NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Ekonomia arloa - Diruzaintza eta zergen bilketa

OHARRAK

Emateko irizpide orokorra.

Borondatzeko epealdian zorren atzerapenak eta zatiketak ondoren adierazten den bezala emango dira:

- 450,00 € eta 3.000,00 € arteko zorrak: 9 hilabete arte. Diruzaintzak ematen du.
- 3.000,01 € eta 6.000,00 € arteko zorrak: 15 hilabete arte. Diruzaintzak ematen du.
- 6.000,01 €-tik gorako zorrak: 24 hilabete arte. Alkatetzak ematen du.

Irizpide orokorrez, ez da 450 €-tik beherako zorrik onartuko.

Izaera orokorrez, zordunari ez zaio bermerik eskatuko ordaindu gabe dagoen zenbateko osoa 6.000,00 €-tiko gorakoa ez denean.

Informazio gehiago

Udala: Tfnoa. 94 630 00 02 (Errentak eta Diru-bilketa)

diruzaintza@amorebieta.eus

www.amorebieta-etxano.eus